

Erregearen laranjak



Jose Inazio
Basterretxea
IDAZLEA

Haserre dago Don Felipe, eta ez daki disimulatzen. Espainia periferikoak haserretu du bere gorentasuna. Errege-etxean eta hark ordezkatzeko duen Estatu-administrazioan, onartezina da periferia izatea berniz folklorikotik harago doan entitate soziologiko bat. Eta hori da Espainiak bizi duen lurraldetasun-krisiaren gakoa.

Laranjaren azalak –periferiak– eman ohi du fruituaren berri, arbolatik zuzenean hartuta edo dendan erostean; haren distirak, haren usainak, haren leunak edo lakarrak iradokitzen du muinaren nolakotasuna. Baina, hori baino gehiago ere bada geruza biltzaile hori. Azalaren faltan, deshidratatu egiten da laranja, galdu eta, azkenean, usteldu.

Zentroan ez dute hain erraz onartzen periferia horrek muina mamitzen laguntzen duela, gunearren luze-zabalerak definitzeaz gain. Eta hori da arazoaren sustraia. Alegia, ezin onartua laranjak azalaren beharra eta hura zaintzearen premia. Espainia ofizialak ez du ikasi 1978ko Konstituzioak mugatzen duen Estatu Autonomikoaren periferiaren ekarpena: linguistikoa, kulturala, politikoa eta ekonomikoa. Periferiaren baztertze politikoa eta administratibo sistematikoaren aurrean, mugitzen hasi dira azaleko hiritarrak. Eta hor agertu dira lehenbiziko arazo serioak.

Erreakzionatu beharra dauka Don Feliperen Espainiak.

Baldin eta Espainiak bere laranja-azalari benetan eutsi nahiko balio, pentsatu beharko luke premia argia duela plangintza batena, zeinaren bidez bestelako Espainia bat amesten duten herritarrak poztuko lituzkeen, orain arteko mespretxuak ahaztu ez eze, lurralde periferikoen balioak eta beharrak onartu eta euren lekuan jarrita.

Gaur arte ez bezala orain bai elkar hartuta, azalekoek eurek ere pentsa lezakete bidera dezaketela Espainia bestelako bat, indar zentralizatzaile irmo eta ankilosatu aurre egiteko. Egun arte, periferiatik hiriburura nor bere bidea egin du. Baina, Madrilen transformatzailea izatera hel liteke periferietako indar politikoa antolatua eta kohesionatua bat.

Espainiak bizi duen nortasun- eta erakundetze-krisi sakonetik ateratzeko, badago hirugarren aterabide bat: periferia barik uztea erregearen laranja. Hots, nor bere marmelada egitea bere laranja-azalak landuta. Kasu horretan, nor bere potean sartuko ditu bere azal zatiak bere azukrearekin eta bere kanelarekin. Katalunia hasi da bide hori jorratzen. Biderik onena ote den, eta bakarra, geroak esango du.

Espainia monolitikoak behe jo duela ematen du. Baina, ikusiko. Periferia guztiek ez dute barne-indar bera. Ezta zentroak ere une oro berbera. ■

Santa Ageda



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Buruan ditudan oroitzapenen arabera, ezin jakin noraino apaindu duen nire memoriak ondotik kontatuko dudana, inbidia galanta sentitu ohi nuen eskola-garaian Santa Ageda bezpera egunean; hain zuzen ere, ikasturte osoan eskolatik kanpora, auzora, ateratzen ginen okasio bakan haietan.

Klaseko lau pertsonak txistua jotzeko ohorea izaten genuen irakasleak hala aukeratuta, *publikoki* txistua jotzeko ordezkari zena duinena ginelakoan, gainerako ikaskideek makilarekin lurra gogoz eta gogor astintzen zuten bitartean.

Nire psikoanalista argentinarrek sintaxi luze bezain dotore batez agertu didanez, mende-

kua hartu nahi izan dut handitan. Orain, makila eskuetatzen dut Santa Ageda bezpera orotan eta, txikitan bizi izandako traumaren ondorioz, txistua jotzen ahaztu zait. Musika-instrumentu bat galdu dut –horren jakitun naiz–, baina lurrari dei kolektiboa egiteko aukera ederki gozatzen dut.

Osasunak eztarria errespetatu artean, ozenki arituko naiz kantari, oleska. Makilaren taupada erritmikoekin uztartuko ditut aspaldiko desira ukatuak eta neguan lurra ernatzeko asmo tribala. Pirinioen beste muturrean aginte-makila hartu nahi izan duen Kataluniako herriak bezala. ■